**KULTURA ETA TURISMO SAILA**
***HABE***

ERABAKIA, 1991.eko ekainaren 13koa, HABEren Zuzendari Orokorrarena, Euskaltegi Publiko, Pribatu Homologatu eta Pribatu Libreek Elkarte Autonomoan eta 1991. urtean antolatzen dituzten helduen euskalduntze eta alfabetatzerako ikastaroak eta horien bete beharreko baldintzak zehaztuz. 6998

**DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO**
***HABE***

RESOLUCION de 13 de junio de 1991, del Director General de HABE, por la que se reglamentan los módulos de cursos y las condiciones que deben cumplir los Euskaltegis Públicos y Privados Homologados y Libres en el año 1991 dentro del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en los cursos de euskaldunización y alfabetización de adultos. 6998

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## OSASUN SAILA

**2717**

AGINDUA, 1991ko abuztuaren 30ekoa, Osasun Sailburuarena, Euskadiko Osasun Informazio Sistemei buruzko Batzorde Aholkularia sortzen duena.

Euskal Autonomi Elkarteko Osasun Informazio Sistemak garatzea ezinbesteko baldintza da, osasun arloan egiten diren ahaleginen benetazko koordinazioa lortzeko, baliabideen erabilpena eraginkorragoa izan dadin eta osasun kudeaketa eta plangintza sistemak hobetzeko.

2000. urtean Osasuna Guztiontzat egitasmoko Europako Eskualdeetarako 35 zenbakiko helburuak honela dio hitzez-hitz: «... Osasuna Guztiontzat egitasmoko euren estrategia nazionalak sustatzeko gai liratekeen Osasun Informazio Sistemak behar lituzkete Elkartekideek».

Jadanik hasitako ekintzen ebaluazioa eta gerora egingo diren ekintzen plangintza ahalbideratuko dituzten Osasun Informazio Sistemen garapena bultzatzea ezinbestekoa da une honetan.

Gure Autonomi Elkartean Osasun Informazio Sistemen arloan garatu behar diren ahaleginak aztertu, berraztertu eta koordinatzeko, beharrezkoa da prestakuntza eta aztura jakinak dituzten aditu profesionalen talde bat sortzea, arlo horretako zenbait alderdi teknikori buruz argibideak eta aholkuak eman diezazkion Sailari.

Guzti hori horrela izanik, eman zitzaizkidan ahalmenekin bat etorriz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Euskadiko Osasun Informazio Sistemei buruzko Batzorde Aholkularia sortzen da; Osasun Sailak aholkuak eskatzeko ihardute-saila izango da, osasun informazio sistemen gaietako aholkularitza teknikoa emateko.

*2. atala.*– Euskadiko Osasun Informazio Sistemei buruzko Batzorde Aholkulariak, aholkua emateko bere eginkizunen eremuan, honako iharduera hauek garatuko ditu:

a) Egun erabiltzen diren informazio azpisistemak berraztertzea.

b) Osasun maila guztietan dauden informazio premiak somatzea (Euskal Autonomi Elkartean, Osasun

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

**2717**

ORDEN de 30 de agosto de 1991, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Comité Asesor sobre Sistemas de Información Sanitaria de Euskadi.

El desarrollo de los Sistemas de Información Sanitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco es una condición necesaria para conseguir una efectiva coordinación de los esfuerzos en materia de salud, una más eficiente utilización de los recursos y la mejora de los sistemas de gestión y planificación sanitaria.

El objetivo Regional Europeo número 35 para la Salud para Todos en el año 2000 dice textualmente: «... los Estados Miembros deberían disponer de Sistemas de Información Sanitaria capaces de apoyar sus estrategias nacionales de la Salud para Todos».

En el momento actual es necesario impulsar el desarrollo de los Sistemas de Información Sanitaria que nos permitan la evaluación de las acciones emprendidas y la planificación de acciones futuras.

Para el estudio, revisión y coordinación de los esfuerzos en el área de los Sistemas de Información Sanitaria a desarrollar en nuestra Comunidad Autónoma, se requiere la creación de un grupo de expertos profesionales de reconocida formación y experiencia que orienten y asesoren al Departamento en los diversos aspectos técnicos de la misma.

Por todo ello, de conformidad con las facultades que me están conferidas,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se crea el Comité Asesor sobre Sistemas de Información Sanitaria de Euskadi, como órgano consultivo del Departamento de Sanidad para el asesoramiento técnico en materia de sistemas de información sanitaria.

*Artículo 2.*– El Comité Asesor sobre Sistemas de Información Sanitaria de Euskadi desarrollará, en el ámbito de su función asesora, las siguientes actividades:

a) Revisar los subsistemas de información en uso.

b) Detectar las necesidades de información de los diferentes niveles sanitarios (Comunidad Autónoma

Alorrean, Osasun Eskualdean, Oinarrizko Sorospidetzan, Sorospidetza Berezituan, Osasun Publikoan, etabar).

c) «Gutxiengo datu multzo» bat proposatzea informazio maila guztientzako.

d) Euskal Autonomi Elkarterako informazio sistemen plan bat ezartzea.

e) Informazio azpisistemen aldaketak proposatzea eta ezarritako planari horiek egokitzea.

*3. atala.*– 1.– Euskadiko Osasun Informazio Sistemei buruzko Batzorde Aholkularia honako kideek osatuko dute: Lehendakari batek, Koordinatzaile Nagusi batek eta, gehienez, hogei Bokalek.

2.– Euskadiko Osasun Informazio Sistemei buruzko Batzorde Aholkulariko kideak Osasun Sailburuordeak izendatuko ditu, Osasun Informazio, Irakaskuntza eta Ikerketa Zuzendariak proposatuta, osasun informazioaren eremuan prestakuntza eta aztura jakinak dituzten profesionalen artean aukeratuko direlarik.

3.– Batzordeko Lehendakariari dagokio bertako ordezkaritza egitea, baita bileretarako deia egin eta hauetan buru izatea ere, boto ebazlea duela.

4.– Koordinatzaile Nagusiak Batzordeko kide izatearren dagozkion eginkizunak izango ditu eta, hauekin batera, Batzordearen iharduerak bultzatzea eta sor daitezen azpibatzorde edo lantaldeak koordinatzea.

*4. atala.*– 1.– Batzordeak, gutxienez, honako informazio alorrak sortuko ditu:

a) Osasun sorospidetza
b) Baliabideak
c) Osasun Publikoa eta Izurriteei buruzko Informazioa.

Alor hauetariko bakoitzaren barnean, agindu zaizkien ihardueren garapen eraginkorra ziurtatzeko helburua kontuan hartuta, bidezkotzat jo daitezen beste talde sortuko dira.

2.– Batzordearen eritzira uzten da, erabili behar den gaiari buruz trebetasun jakina duten pertsonak bertako bileretara joatea eta bere iharduerak garatzeko lankidetza eskaini ahal izatea, beroiek egindako ekarpenak eta lan zientifikoak, atera beharreko ondorioetarako eta hartu beharreko erabakietarako interesgarritzat jotzen badira.

*5. atala.*– Euskadiko Osasun Informazio Sistemei buruzko Batzorde Aholkulariak lanerako plan bat ezarriko du, Osasun Sailak emandako arteztarauen arabera, eta Ihardute-sail Kolejiatuentzako Administrazio Prozeduraren Legeak finkatutako arauez baliatuko da bere ihardunean.

6. atala.– Euskadiko Osasun Informazio Sistemei buruzko Batzorde Aholkularia Osasun Sailordetzari atxikita gelditzen da.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Euskadiko Osasun Informazio Sistemei buruzko Batzorde Aholkulariko kideek emandako zerbitzuengatik, indarrean dagoen arauteriaren arabera dagozkien dietak edo kalteordainak jaso ahal izango dituzte.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Ahalmenak ematen zaizkio Osasun Sailburuordeari Agindu hau garatzeko eta betetzeko beharrezko izan daitezen Erabakiak eman ditzan.

del País Vasco, Area Sanitaria, Comarca Sanitaria, Atención Primaria, Atención Especializada, Salud Pública, etc.),

c) Proponer un «conjunto mínimo de datos» para los distintos niveles de información,

d) Establecer un plan de sistemas de información para la Comunidad Autónoma del País Vasco,

e) Proponer las modificaciones de los subsistemas de información y su adecuación al plan establecido.

*Artículo 3.*– 1. El Comité Asesor sobre Sistemas de Información Sanitaria de Euskadi estará compuesto por los siguientes miembros: un Presidente, un Coordinador General y un máximo de veinte Vocales.

2. Los miembros del Comité Asesor sobre Sistemas de Información Sanitaria de Euskadi serán designados por el Viceconsejero de Sanidad, a propuesta del Director de Información, Docencia e Investigación Sanitaria, entre profesionales de reconocida formación y experiencia en el campo de la información sanitaria.

3. Corresponderá al Presidente del Comité la representación del mismo, así como la convocatoria y presidencia de sus reuniones, ostentando voto de calidad.

4. El Coordinador General ostentará las funciones que le correspondan como miembro del Comité, y las de impulso de las actividades de éste y la coordinación de las comisiones o grupos de trabajo que se creen.

*Artículo 4.*– 1. El Comité creará, al menos, las siguientes áreas de información:

a) Asistencia Sanitaria
b) Recursos
c) Salud Pública e Información Epidemiológica

Dentro de cada una de estas áreas se crearán cuantos grupos de trabajo se estimen pertinentes en orden a asegurar un eficaz desarrollo de las actividades que le son encomendadas.

2. A criterio del Comité, podrán asistir a sus reuniones y colaborar en el desarrollo de sus actividades, aquellas personas de reconocida competencia en el tema a tratar, cuyas aportaciones y trabajos científicos realizados sean considerados de interés en orden a las conclusiones y decisiones a tomar.

*Artículo 5.*– El Comité Asesor sobre Sistemas de Información Sanitaria de Euskadi establecerá un plan de trabajo, según las directrices del Departamento de Sanidad, rigiéndose en su funcionamiento por las normas fijadas en la Ley de Procedimiento Administrativo para los Organos Colegiados.

*Artículo 6.*– El Comité Asesor sobre Sistemas de Información Sanitaria de Euskadi queda adscrito a la Viceconsejería de Sanidad.

DISPOSICION ADICIONAL

Los miembros del Comité Asesor sobre Sistemas de Información Sanitaria de Euskadi podrán percibir las dietas o indemnizaciones por razón de servicio que les correspondan de acuerdo con la normativa vigente.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Viceconsejero de Sanidad para dictar cuantas Resoluciones sean precisas para el desarrollo y cumplimiento de esta Orden.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1991ko abuztuak 30.

Osasun Sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

*Segunda.*– La presente Orden entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de agosto de 1991.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak
## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

**2718**

ERABAKIA, 1991ko uztailaren 5ekoa, Euskal Herriko Unibertsitatearena, beronen bidez José Miguel González Ardeo Jauna «Frantses Filologia» Jakintz arloan Unibertsitate-Eskolako Irakasle titularra izendatzen duena, lanpostu horretarako deia 1990ko uztailaren 11ko Erabakiz egin zela (uztailaren 19ko Estatuaren Buletin Ofiziala). (Hutsen zuzenketa).

1991ko uztailaren 30eko «Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko» 153. alean argitaraturiko eta arestian aipaturiko Erabakian errakuntzak aurkiturik, dagozkion errakuntzen zuzenketak ezartzen dira ondoren:

6086. orrialdean, honako hau dioenean ««Frantses Filologia» Jakintz Arloan, beronen plaza...», honako hau esan behar du: ««Ingeles Filologia» Jakintz Arloan, beronen plaza...».

6087. orrialdean, honako hau dioenean «Jakintz Arloa: «Frantses Filologia». Saila: Ingeles eta Aleman Filologia.», honako hau esan behar du: «Jakintz Arloa: «Ingeles Filologia». Saila: Ingeles eta Aleman Filologia.»

**UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO**

**2718**

RESOLUCION de 5 de julio de 1991, de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se nombra Profesor titular de Escuela Universitaria a D. José Miguel González Ardeo, en el área de conocimiento «Filología Francesa», cuya plaza fue convocada por Resolución de 11 de julio de 1990 («Boletín Oficial del Estado» de 19 de julio). (Corrección de errores).

Advertidos errores en la mencionada Resolución, publicada en el «Boletín Oficial del País Vasco» nº 153, de fecha 30 de julio de 1991, a continuación se hacen las oportunas rectificaciones:

En la página n.º 6086, donde dice: «..., en el área de conocimiento «Filología Francesa», cuya plaza ...», debe decir: «..., en el área de conocimiento «Filología Inglesa», cuya plaza ...».

En la página n.º 6087, donde dice: «Area de conocimiento: «Filología Francesa». Departamento: Filología Inglesa y Alemana.», debe decir: «Area de conocimiento. «Filología Inglesa». Departamento: Filología Inglesa y Alemana.».

**2719**

ERABAKIA, 1991ko abuztuaren 16koa, Euskal Herriko Unibertsitatearena, beronen bidez M. Begoña Asua Batarrita «Hezkuntzaren Teoria eta Historia» Jakintz arloko Unibertsitateko Irakasle titular izendatzen duena, beronen plazarako deialdia 1990eko uztailaren 2ko (uztailaren 9ko «Estatuaren Buletin Ofiziala») Erabakiaren bidez egin zelarik.

Unibertsitate-Erreformarako Abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 42. atalean eta berau garatzen duten gainerako xedapenetan ezarririkoaren arauera, eta interesatuak, 13. ataleko 1. puntuan ezarririko epean, Irailaren 26ko 1888/1984 Errege Dekretuaren 5. ataleko 2. apartaduan aipaturiko betebeharrak bete ondoren, Euskal Herriko Unibertsitatearen

**2719**

RESOLUCION de 16 de agosto de 1991, de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se nombra Profesora titular de Universidad del área de conocimiento «Teoría e Historia de la Educación» a Dña. M. Begoña Asua Batarrita, cuya plaza fue convocada por Resolución de 2 de julio de 1990 («Boletín Oficial del Estado» de 9 de julio).

De conformidad con la propuesta de la comisión nombrada por Resolución Rectoral de 29 de noviembre de 1990 («Boletín Oficial del Estado» de 30 de marzo de 1991) para juzgar el concurso para la provisión de una plaza de Profesor titular de Universidad, convocada por Resolución de 2 de julio de 1990 de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsi-